

Iruñeko poesia sariketa bakedao, 1610

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Fiestas del corpus que el año 1610, hizo el ilustrissimo señor Don Antonio Venegas de Figueroa, obispo de Pamplona.

Argitaratzen den bertzio honen iturria: K. Mitxelena, Textos arcaicos Vascos, Madrid, 1960, 119-121 or.

Bertzio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Iruñeko poesia sariketa bakedao, 1610

«No hubo mas de un Romance bueno en bascuence, y no me espanto, que es propio de esta lengua faltar en Romance. Diosele el primer lugar y premio...a Martin Portal...»

Romance del Santissimo Sacramento en Bascuence

Ogui consagratua,
Arimaco sustentua,
Ene ariman eguin eguiçu
Egun ceure ostatua.

Peregrinoa nola çatoz
Haitua mudatua:
Libreaçat artu deçu
Ogui consagratua.

Andiro honrratu deçu
Munduco desterrua.
Orain norc ocupacen deu
Ceruan çure lecua?

Glossa

Ni Iangoico naiz eta
Veti nago Ceruan.
An faltaric eguin gabe,
Ogui congagratuan.

Paradisuan criatu neuan
Guizonarençat frutua,
Erregaro ascorequin
Paradisuco lecua,

Eta çure arimarençat
Sacramentu santua.
Çure jaquia izango da
Ogui consagratua.

India Orientaleco
Arri preciatua,
Mundu guztia largatu deu
Cerua<c> aberastua.

Probeen aytea da,
Guiçonon abogadua,
Flacoarençat gaztelua,
Ogui consagratua.

Lenagoco ayta santuay
Messias prometitua,
Essayas propheteac
Ascotan desseatua.

Onen deyes egondu çan
Erregue David santua.
Peccatoria, jan eguiçu
Ogui consagratua.

Ceruac asco valio deue
Eta ango ayngueruac:
Aen gañean efeñi ditu
Jaunac gure buruac

Fantasiaric estaguiçula,
Seraphin escogituac.
Guças contu gueyago eguin deu
Ogui consagratuac.

Ceruac echiric egon ciran
Bost milla urtean,
Guiçonica eldu essan
Paradisuco atean.

Baya orai beteco dira
Ceruan gure lecuac.
Ango ateac yrequi digus

Ogui consagratuac.

Alegrerica egongo da
Martiri gloriosoa,
Ceruco sillan jarririca
Cumplituric desseoa,

Arrosas jancirica
Virginaen choruan.
An erdian egongo da
Ogui consagratua.

Eliçaco Doctoreac,
Amavi Apostoluac,
Pobreçarica yrtenica
Mendico hermitañuac,

Capitançat daroela
Elias guiçon santua,
Exempluçat arturica
Bautista bedeyncatua.

Pagatua yçango da
Munduco penitencia,
Pobreçea penarequin,
Gosea eta egarria.

Onelacoac yrabasten
Iangoycoaren çerua;
Aen pagua içango da
Ogui consagratua.